

Arrautza jaurtiketa lehiaketa

2007/05/24

Aurten ere, **M.U.ko Goi Eskola Politeknikoko** arrautza lehiaketako parte hartzaileek bere diseinu burutsuekin harritu gaituzte. Maiatzaren 10ean, **San Pankrazio** eguna ospatzeko antolatutako egitarauaren barruan, lehiaketa honen VIII.edizioa burutu da. Ekimen hau diseinu industrialeko irakasle talde batek jarri zuen martxan, ikasleen berrikuntzarako eta sormenerako gaitasunak suspertzeko helburuarekin eta urteik urtera indar gehiago hartuz joan da.

Aurten, 90 inguru izan dira parte hartu dutenak, 3-4ko taldeak osatuz. Horietatik 80 ikasleak izan dira eta gainontzekoak Eskola bertako langileak.

Txapelketaren baldintzak:

Lehiaketaren helburua: Arrautza ahalik eta urrutien jaurtitzea. Horretarako, ondorengo baldintzan bete beharra dago:

- Erabili daitekeen materiala: kartulina, soka, kontaktu kola eta oilo arrautza fresko bat
- Arrautzak begi bistan egon behar dut (eta gordinik)

3 sari banatuko dira:

- **Distantzia:** urrutien heltzen denak irabazten du.
- **Estetika:** estetika politena duenak irabazten du.
- **Hegaldia:** hegaldi dotoreena egiten duenak irabazten du.

2007 txapelketako irabazleak:

- **Distantzia handiena:** Buart Taldea. Miren Buruaga, Unai Saiz, Leire Lozano, Ainhoa Fernandez de Arroiabe eta Jon Akabek osatua.
- **Estetika onena:** Los Huevones Taldea. Intza Arrieta, Irati Gonzalez, Aizea Lekuona eta Juan Ignacio Calvok osatua.
- **Hegaldi dotoreena:** Patxi Taldea. Roberto Sanchez, Jose Manuel Maneiro, Endika Bilbao, Aritz Legarretaetxebarria eta Ivan Zuritak osatua.

